

# Petronor ziur dago aurrerantzean ere Kutxabank akziodun izango dela

Muskizko findegiko presidentearen esanetan, finantza erakundeak «inoiz ez du asmorik izan konpainiatik ateratzeko» • 30 milioi inbertituko ditu findegian, egoitza berria prest egoteko 2020rako

## Jon Fernandez

Kutxabanke enpresa esanguratsuetan dauzkan akzioak saltzeko daukan estrategiaz galdetuta, beldurrik ez daukala azaldu du Petronorreko presidentek, Emiliano Lopez Atxurak. «Kutxabanke ez du inoiz borondaterik eta asmorik izan konpainiatik ateratzeko», adierazi zuen atzo Lopez Atxurak Muskizen (Bizkaia), Petronorren egoitza nagusirako eraikin berriaren proiektua aurkezteko ekitaldian. Esprikatu zuenez, iturri zuzenekoak ziurtatu dio finantza erakundeak Petronorreko akziodun izango dela aurrerantzean ere, Gregorio Billalabeitiak berak, Kutxabankeko presidentek —%14,02ren jabe da gaur egun, eta gainontzeko %85,98 Repsolenak dira—. Lopez Atxurari esan dionez, «borondate irmoa» dauka Petronorren jarraitzeko, «harreman erraza eta erosoa» daukatelako.

Enpresen arriskuek bankuari ez eragiteko asmoz, bankuak akzioak saldu eta parte hartzeak txikiagotu ditu jabetzaren zati bat zeukan hainbat talde industrialetan: besteak beste, Enagasen, Delon, Iberdrolan, Informatica de Euskadin, Ingeteamen, Itineren, NH Hotelesen, Talden eta Zeltian. Oraindik ere, Kutxabanke parte hartze handiak ditu Euskaltelen (%21), CAFen (%14,05), eta Repsolen (%14,02).

Azken hiru konpainia horietan



Emiliano Lopez Atxurra Petronorreko presidentea —ezkerretik bigarrena—, atzo, Petronorren egoitzan, eraikin berriaren irudiari begira. PETRONOR

ere finantza erakundeak desinbertsioak egin ote ditzakeen galdetuta eman zuen Petronorreko buruak Billalabeitiaren asmoen berri. Berretsi zuen Kutxabanke eta haren kontseilariak «posizio indartsua eta aktiboa» daukatela konpainiaren barruan, eta «baber handia» ematen diotela Petronorren proiektuari, «bai oraingoari, bai etorkizunekoari».

### Akziodunak, burujabeak

Edonola ere, Lopez Atxurak argi utzi zuen finantza erakundeak, beste edozein akziodunen mo-

duan, «burujabea» dela bere akzioekin egoki deritzona egiteko. «Kasualitatez eta bere arrazoiengatik» Kutxabanke etorkizunean bere akzioekin beste zer edo

**Repsol da Petronorren akziodun nagusia (%85,98), eta haren babesa «ondo lotuta» dauka konpainiak**

zer egitea erabakiko balu, «ni ez naiz inor inori ezer esateko». Hori bai, Petronorreko presidentek nabarmendu zuen Repsol dela

Petronorren «akziodun nagusia eta nabarmenena», eta hark «apustu sendoa» egina duela Petronorren alde, eta haren babesa «ondo lotuta» dagoela.

Adierazpenok Petronorren proiektu berriaren aurkezpeneari egin zituen Lopez Atxurak atzo. Petrolio findegia 30 milioi euro inbertituko ditu egoitza berria eta prestakuntza zentro berria eraikitzeko Muskizko lantegian. Zuzendaritzak espero du instalazio berriak prest egotea 2020ko udazkenerako.

Azaldu zuenez, egoitza berria


hiru eraikinek osatuko dute: bulego nagusiek, 1.000tik gora pertsonarentzako jantokiak eta aldagetok. Halaber, Muñatoizko jau-regia, bulego nagusien orain arteko egoitza, findegiko langileen prestakuntza zentro berria izango da. Urtero 80.000 prestakuntza ordu baino gehiago antolatzen dituzte, nagusiki segurtasunari eta ingurumenari buruzkoak.

### «Emitza txukunak»

Bulegoen eraikin berriak 3.563 metro koadro izango ditu, eta 178 enplegutarako tokia izango da bertan. Aldagelen eraikinak, bestalde, 3.300 metro koadroko azalera izango du, bi solairutan, eta 700dik gora beharginak erabiliko dituzte egunero.

Eraikin berrien proiektua azaltzarekin batera, Lopez Atxurak iragarri zuen 2018ko emaitzak «txukunak» izango direla, «petrolioaren prezioak gorabeherak izan arren findegia jardura ona izan duelako». Edonola ere, administrazio kontseiluak urtarileko bileran aztertuko ditu iazko emaitzak, eta Petronorrek otsaillean emango du haien berri.

## berrialaguna



Santi Lazkano Kirolak, O.E.

**Merkealdiak badatoz!**

Jose de Artetxe 1, Azpeitia • 943811650



KOMUNITATEEN  
ADMINISTRAZIOAK SL

Kol. Zenb. 599

Araba kalea, 1 • ORDIZIA  
Tel.: 943-08 74 86  
Faxa: 943-08 74 85  
auzoki@auzoki.eus